# HIRUKIDE,10 URTE FAMILIA UGARIENTZAKO AURRERAPEN HANDIAK LORTZEN

Hirukidek lanean eman dituen 10 urteetan, lorpen ugari egin ditu Erakunde Publikoekin eta entitate pribatuekin. Hona hemen garrantzitsuenak:

10 Urte Años Hirukide
Euskadiko Kide Ugariko Familien Federazioa
Federación de Familias Numerosas de Euskadi

| | 1999 | 2009 |
|---|---|---|
| Esparru juridikoa | - Familia Ugariak **Babesteari buruzko 25/1971 Legea** (konstituzioaren aurreko legea), artikuluen zenbait aldaketarekin.<br>- **Hiru kategoria**:<br>1. kategoria: 3, 4 edo 5 seme-alaba.<br>2. kategoria: 6-9 seme-alaba.<br>Ohorezkoa: 10 seme-alaba edo gehiago.<br>- **Familia Ugariaren Titulua**: familia ugaria dela egiaztatzen duen liburua. | - **Familia Ugarien Babesari buruzko 40/2003 Lege berria**, haren berezko Erregelamenduarekin. (BOE)<br>- **Familiei Laguntzeko 13/2008 Legea**. (EHAA)<br>- **Kide ugariko familiei laguntzeko** Arabako Foru Aldundiak (AFA) neurri-sorta bat onartzea:<br>Zerga-neurriak: ibilgailuen zergan % 90eo hobaria arautu da, udalek aplikatu ahal izateko eta ondare eskualdaketa zerga murriztu egin da 120 metro karratu baino gehiagoko etxebizitzei dagokienez.<br>Lanaldi eta familia bizitza adiskidetzea: haur-eskola bat sortzea AFAren ingurunean eta enpresak kontziliazioa ahalbidetzera bultzatuko dituen klausula sartzea lanen lizitazioan.<br>- **Bi kategoria**:<br>Orokorra: 3 seme-alaba, eta horietako bat ezindua bada, gurasoa alarguna bada, edota bi gurasoetako batek % 65etik gorako ezintasuna badu, 2 seme-alaba.<br>Berezia: 5 seme-alaba edo gehiago, eta horietako 3 erditze edo adopzio multipletik badatoz, 4 seme-alaba.<br>**Tituluaz** gain, **Familia Ugariaren banako agiri** bana 5 urtetik gorako kide bakoitzarentzat. |
| Zuzeneko laguntzak | • ESPAINIA •<br>- **Ardurapeko 18 urtera arteko seme edo alaba bakoitzeko**:<br>3.000 pezeta hileko (errentapekoak)<br>- **Ardurapeko seme edo alaba ezindu bakoitzeko**:<br>6.000-39.000 pezeta hileko. (errenta-mugarik gabe) | • ESPAINIA •<br>- **Semea edo alaba jaiotzeagatik** (ordainketa bakarra): 2.500 €. Familia ugaria bada, 1.000 € gehiago (errentapekoak)<br>- **Erditze edo adopzio multipleagatik** (ordainketa bakarra): 4-12 aldiz LGSa.<br>- **Ardurapeko seme edo alaba bakoitzeko**: 41,67 € hileko, 3 urte baino gutxiago baditu. (errentapekoak) 24,25 € hileko, 3 urte baino gehiago eta 18 baino gutxiago baditu.<br>- **Ardurapeko seme edo alaba ezindu bakoitzeko**: 83,35-492,66 € hileko. (errenta-mugarik gabe)<br>• EUSKADI •<br>- **Semea edo alaba jaiotzeagatik**:<br>Lehen seme edo alaba: 400-900 € (errentapekoak)<br>Bigarren seme edo alaba: 1.100 € (jaiotza bakoitzeko) 400 € (lehen urtea)<br>3. seme edo alaba eta hurrengoak: 1.100 € (jaiotza bakoitzeko eta laugarren urtera arte) 400 € (bosgarren eta seigarren urteak)<br>Horretaz gain, Euskadiko zenbait udalerrik ere laguntzak ematen dituzte seme-alabak jaiotzen direnean (horietako batzuk errentapekoak dira, eta beste batzuk, orokorrak). |
| Enplegua eta bateragarritasuna | • ESPAINIA •<br>- **Kotizazioaldia** seme-alabak zaintzeko eszedentzialdiagatik:<br>Kategoria Orokorra: 15 hilabete.<br>Kategoria Berezia: 18 hilabete.<br>- **Amatasun-baimena**: 16 aste (erditze multipleen kasuan, 2 aste gehiago bigarren seme edo alabatik zenbatzen hasita) | • ESPAINIA •<br>- **Kotizazioaldia** seme-alabak eta mendeko senitartekoak zaintzeko eszedentzialdiagatik:<br>Kategoria Orokorra: 30 hilabete.<br>Kategoria Berezia: 36 hilabete.<br>- **Amatasun-baimena**:<br>16 aste (seme edo alaba ezindu bakoitzeko, 2 aste gehiago, eta baita erditze multipleen kasuan ere, bigarren seme edo alabatik zenbatzen hasita).<br>Gutxieneko kotizazio aldirik gabeko emakume langileak: 8 aste<br>- **Aitatasun-baimena**:<br>Lehen seme edo alabagatik: 13 egun.<br>Bigarren seme edo alabagatik: 15 egun.<br>Hirugarren seme edo alabagatik eta hurrengoengatik: 20 egun.<br>(2 egunera hedatu ahal izango da seme-alaba bakoitzagatik erditze multipleetan).<br>- **Aitatasun/amatasun-baimena (Autonomoak)**: Denbora partzialeko baimena, denbora partzialeko lanaldia izanez gero.<br>- **Zaintzaileak kontratatzea:** adingabeak zaintzeko, % 45eko hobaria Gizarte Segurantzarako kuotetan.<br>• EUSKADI •<br>- **Laguntzak seme-alabak edota mendeko senitartekoak zaintzeko eszedentzialdian edota lanaldi-murrizketan**: 1.350-3.000 € (gizona edo emakumea izatearen arabera).<br>- **Zaintzaileak kontratatzea**: errentaren arabera, % 50-100eko hobaria (adingabeak zaintzeko Gizarte Segurantzarako kuoten gainerako % 55etik). |
| Hezkuntza | - **Unibertsitate Publikoa**:<br>1. kategoria: % 50eko deskontua matrikulan.<br>2. kategoria eta ohorezko kategoria: ez dute matrikula ordaindu behar | - Gainera, Unibertsitate Publikoaren fakultate batean jasoko litzatekeenaren pareko kenkaria aplikatzen da Euskadiko **Unibertsitate Pribatuetan**.<br>- Ikasleak ikastetxeetan **onartzeko irizpideak**:<br>Kategoria Orokorra: puntu 1.<br>Kategoria Berezia: 1,5 puntu. |
| Fiskalitatea | **PFEZ**:<br>- Kenkaria seme edo alaba bakoitzeko.<br>- Kenkari berezia 3 urte baino gutxiago dituzten seme-alabengatik.<br>- Ohiko etxebizitzarako inbertsio eta alokairu orokorrengatiko kenkariak edozein familiarentzat. | **PFEZ**:<br>- Seme edo alaba bakoitzeko, % 50-90eko igoera kenkarietan.<br>- Kenkari berezia 6 urte baino gutxiago dituzten seme-alabengatik.<br>- Ohiko etxebizitzarako inbertsio eta alokairuagatiko kenkari handiagoak familia ugarientzat.<br>**Udal Zergak, Tasak eta Prezio Publikoak**:<br>- Euskadiko 167 Udalek deskontuak aplikatzen dizkiete familia ugariei.<br>**Matrikulazio Zerga**: % 50eko hobaria. |
| Garraioa | - **Errepideko, trenbideko, itsasoko eta aireko garraioei** dagokionez, joaneko txartelen gaineko % 20ko, % 40ko eta % 50eko deskontuak. | - % 20ko eta % 50eko deskontuak **errepideko, trenbideko eta itsasoko garraioan**; errepideko eta trenbideko garraioari dagokionez, edozein txartel-modalitatetan meta daitezke deskontu horiek.<br>- **Aireko garraioari** dagokionez, % 5eko deskontua Kategoria Orokorrean eta % 10ekoa Kategoria Berezian. |
| Etxebizitza | **Bizigarritasuna**: ratioa (12 $m^2$ pertsona bakoitzeko). | - **Bizigarritasuna**: ratioa handitu zen, zehazki, 15 $m^2$ pertsona bakoitzeko, eta hori baino txikiagoa bada, infraetxea BOE batekin truka daiteke.<br>- **BOEtarako zozketetan sartzea**: % 25eko igoera gehieneko diru-sarrera haztatuetan.<br>- **Erreserba gehigarriak** BOEen zozketetan.<br>- **BOEen diseinua**: Sustapen bakoitzeko etxebizitzen % 3 >90 $m^2$ eta <120 $m^2$ izan daiteke<br>- **Ohiko etxebizitza birgaitzea** (errentapean): Familia ugarientzat, % 5eko igoera diru-laguntzan.<br>- **Etxebizitza Libre Erabilia** erosteko diru-laguntzak (errentapean). |
| Deskontuak saltoki eta enpresetan | | - **Familia Ugarientzako Gidaliburua, Eusko Jaurlaritzarena** (**Hirukidek** kudeatua): 1.540 erakunde eta saltokik prezio bereziak egiten dizkiete familia ugariei.<br>- **Hirukide**: 154 erakunde eta saltokik deskontu espezifikoak egiten dizkiete familia ugari elkartuei. |
| Iritzi publikoa | Inolako presentzia eta bozeramailerik gabeko kolektiboa. | - Komunikabideetan presentzia garrantzitsua; Familiarekin zerikusia duten gai guztietarako, Hirukide ohiko solaskidea dugu komunikabideetan. (**batez beste 220 agerpen urteko**) |
| Aisialdia eta bestelakoak | % 20ko, % 40ko eta % 50eko deskontuak **museo publikoetan**. | - Gutxienez % 50eko deskontua **estatuaren museoetan**.<br>- % 30eko hobaria hiru Foru Aldundiek antolatutako **udalekuetan**.<br>- **Bono soziala** tarifa elektrikoetan: 2012 arte izoztu egingo da kilowattioaren prezioa TUR-i (10kw baino gutxiagoko potentzia kontratatua) heldu dioten kide ugariko familia guztientzat. |

Ia neurri edota hobari hauek guztiak ez dira ofizioz aplikatzen. Epearen barruan eskatu behar dira eta kide ugariko familia izateko egiaztagiria (kide ugariko familia titulua) edo familia-liburua aurkeztu. Informazio gehiago: **www.hirukide.com**